

Lehen egunak Lauaizetan

Villamadernen nengoela mugikorrera whatsapp bat iritsi zitzaidan.

Whatsapp-ean jartzen zuen zeintzuk ziren Lauaizetako taldeak, egia esan hasieran oso urduri nengoen, baina irakurri nuenean, nire urduritasun guztiak joan ziren. Nik nahi nituenekin tokatu zitzaidan. Pixka bat beranduago amaren whatsapp iritsi zitzaidan esanez zeintzuk ziren taldeak, baina nik banekizkiela esan nion.

Egun batzuk pasata ikastolako lehen eguna iritsi zen. Egia esan, oso oso urduri nengoen eta nire lagunak lasaitzen saiatu ziren eta lortu ere egin zuten. Jangelako eserlekuan eseri eta irakasleak entzun genituen. Gure bizitzako etapa berri bat hasi zen. Ez da etapa inportanteena, baina oso niretzat bada: lagun berriak egiteko, asko ikasteko... etapa iritsi da.

Orain handiagoak gara. Horrek bere gauza txarrak ere baditu. Etxerako lan gehiago, azterketa eta lan gehiago... Bere alde onak ditu, adibidez: ostiral eta asteazkenetan klaseak bakarrik goizez edukitzea eta gauza askoz gehiago.

Lehenengo eguneko klasea amaitu zenean, hilerritik bueltatu ginen. Hizketan pasa genuen bide guztia, bidea oraindik pixka bat luzea egiten zait eta egunero goizeko 7:30etan hortik pasatzea ez zait asko gustatzen. Nahiago nuen Aitor Ikastola bi pausora nuelako.

Bigarren egunean klaseak eduki genituen, erresa iruditu zitzaidan, baina lehenengo azterketa iritsi zenean, ez zitzaidan hain erresa iruditu. Aurrera jarraitu nuen eta nola ez, gaingitu nuen!

Hortik aurrera erresagoa egin zait klaseak eta ikasgaiak.

UXUE FERNÁNDEZ 1A

Lauaizetako lehenengo egunean urduri baino urduriago nengoen, hain urduri ematen baitzuen tximeleten orde z saguzarrak nituela tripan. Sentsazio hori hasita nuen goizetik, baina Lauaizetara sartzerakoan, puf...

Beno horretaz aparte gelara sartutakoan, ez zen urduritasuna izan gehiago, poza eta jakinmina sortu zitzaidan, banekielako zerbait, adibidez; azterketetako presioa, kezkak, laguntasuna...

Momenturik onena Enara, tutorea, ezagutu nuenean izan zen, bere aurpegiaren espresioak lasaitu eta lagundu zidan, ikusten asko lagunduko zigula talde kooperatibo bat sortzen eta txukuntzen.

Beranduago konturatu naiz oso jenio txarra duela eta zorroztasun bikaina duela baino horrek ez du garrantzirik, oso ondo konpontzen naizelako berarekin. Oso ondo konpontzen naiz nire ikaskide eta gainerako irakasleekin eta espero dut nota berdin edo hobeagoak izatea hurrengo hiru hilabeteetan.

OSO ONDO KONPONTZEN NAIZ IKASTOLAN!

UXUNE RODRÍGUEZ 1A

..Ni Lauaizetara etorri nintzenean, egia esan, labirinto bat iruditu zitzaidan. Hautazkoa daukagunean gehienetan galdu egiten gara, baina geroz eta azkarrago goaz.....

ADEI CORTÉS 1A

Lauaizetara pasa nintzenean, aldaketa oso handia izan nuen. Intxaurrondokoekin bildu ginen jangelan irakasleen aurkezpenak entzuteko.

Hasieran urduri nengoen, dena desberdina zelako, baina egunak pasa ahala, segurtasuna gehiago hartu nuen. Lehenengo egunean, irakasleen aurkezpenen ondoren, gure geletara joan ginen. Arlo baterako irakasle bat zegoen eta hori izan zen ni gehien harritu ninduen.

Arloa aldatzean, irakasle bakoitzak sakonago aurkezten zuen bere burua eta txapa asko zen. Irakasle bakoitzarekin hainbat jolas egin genituen eta oso ondo pasa genuen eta gainera gehiago ezagutu genituen irakasleak.

Asko aldatu zena patioa izan zen. Lauaizetan lau aldiz pertsona gehiago zegoen Aitor ikastolan baino. Arazo bat dago: 3. eta 4. mailakoek ez zutela asko errespetatzen eta hori oso gaizki iruditu zitzaidan.

Bigarren egunean ere jolasak egin genituen eta oraindik irakasle batzuk falta ziren guk ezagutzeko.

Egunak pasa ahala, lehenengo azterketa heldu zen. Oso urduri nengoen Lauaizetako lehenengo azterketa zelako. Oso zaila izango zela uste nuen. Zaila zen, baina ez hainbesterako.

IVAN JARA 1A

Egia esanda, Lauaizetara etorri baina egun bat lehenago hasi nintzen urduri jartzen.

Etaparen berria izango zelako nengoen, urduri, dena pilatzen da: jende berria, gelak nahastuta...

Nire ustez inguruko jendeak beldurra edo urduritasuna pasatzen dizute. Lagunen kontua ere gelan jende berri edukitzeaz urduri nengoen. Nahiz eta beste gela batean egon, ez nuen harreman asko beraiekin.

Kurtso hasieratik onera askoz lasaituagoa nago. Gelak oso ondo daude, irakasleak jatorrak, etxeko lanak nik uste baina gutxiago, lagun berriak egin ditut eta jende askorekin konfiantza handia hartu dut. Azterketen kontua ikasten bazoaz kurtso guztian, ez zaizu hain astuna egiten.

Oso gustura nago orokorrean, ez da esaten dizuten bezain gogorra.

ANE ARIZAGA 1A

....Nire Lauaizetako lehenengo egunean, oso urduri nengoen. Baina, denborarekin, konturatu egin naiz, ez dela hain aldaketa handia. Badaude aldatzen diren gauza batzuk, adibidez, azterketak pixka bat zailagoak dira, serioago egon behar zara, etxeko lanek garrantzi handia dute, baita gelan zaudenean duzun jarrera ere.

“Beldurra” ematen zidan DBH-ra pasatzeak, LH-n handienak izatetik, DBH-ko txikienetara pasatzerako orduan gehien bat....

HAIZEA GARMENDIA 1A

Seigarren mailan geundenean, Aitor Ikastoko bi gelak Lauaizetara etorri ginen Teknologiako proiektu bat egin genuen hemengo 2.mailako ikasle batzuekin.

Nire Lauaizetako lehen klase egunean oso urduri egon nintzen, ez nekielako zein izango zen geure tutorea. Aitor Ikastolako lagun guztiak gelditu ginen boligrafo eta koadernotxo batekin 9:20an Kata tabernan eta gorago bizi direnak Polloeko sarreran.

Iritsi bezain laster, atea ireki zizkiguten eta jangelara joateko esan ziguten. Han arauak, irakasleak aurkeztu, tutorea esan... Nik tutore jator bat tokatzea nahi nuen eta Enara tokatu zitzaigula esan zigutenean, oso pozik jarri ginen gelako gehienak. Ondoren, Enararekin gelara etorri ginen eta gelan apunte batzuk idatzi genituen ekarritako koadernotxoan, baina nik denbora guztian izan nuen pentsamendu bakarra izan zen, Aitor ikastolako zaharrenek esandakoa: "Lauaizeta harroputz beteaz zegoela" baina, niri kontrakoa iruditu zitzaidan.

Gure lehenengo azterketa Matematikakoa izan zen, benetan oso urduri nengoen gainditu nahi nuelako. Beraz, azterketa horretarako asko ikasi nuen eta emaitzak dezente ondo atera zitzaizkidan. Hori dela eta, oso pozik joan nintzen etxera.

Orain geroz eta gehiago konturatzen ari naiz oso aldaketa handia dela Aitor Ikastolatik Lauaizetara joatea: azterketa gehiago, etxeko lan gehiago... askoz zailagoa egiten ari zait.

ANDER SUKIA 1A

Nire lehenengo egunak Lauaizetan oso errazak egin zitzaizkidan. Gogoratzen naiz nire lagunak oso urduri zeudela, baina ni patxada handiz nengoen. Oso ondo gogoratzen dudana hau da: “whasappeko” taldean mundu guztia ari zen hitz egiten Lauaizetako gelei buruz:

-Taldeak atera dira?

-Hori da, atera dira edo ez...

-Ez, oraindik ez dira atera.

Kaos handia zen eta momentu horietan bai urduri sentitu nintzela. Nire lagunekin Skypetik hitz egiten ari nintzen, mugikorra begiratu nuen eta bat-batean gelak “washappeko” taldean ipinita zeuden. Momentu horretan disgustu handia hartu nuen eta malko bat masailetik jaitsi zitzaidan, ez zitzaidalako tokatu nire betiko lagunekin.

Lehenengo egunean gelara iritsi eta konturatu nintzen nik ahal nuela bizitzako etapa berri honekin.

PERU GIRONA 1A

Lehenengo egunean Lauaizetan oso urduri nengoen ikastola handiagoa zelako, jende asko ezezaguna... Dena zen berria niretzat. Aitor ikastolatik Lauaizetara etortzean aldaketa asko daude. Uste nuen galduko nintzela pasillotan. Ez nekien orduro aldatzen zirela irakasleak ere. Ez nekien mediatekan ordenagailuak zeudela. Niretzat Soinketa Lauaizetan bertan egitea arraroa egiten zitzaidan, Aitorren polikiroldegira joaten ginen eta.

Irakasleak ezagutu nituenean, oso jatorrak iruditu zitzaidan. Uste nuen PTE zegoela, laguntza beste gela batean, baina hemen gelaren barruan dago. Ez nekien takilak zeudela gela barruan eta ondo hori ondo dago egotea mugikorra gordetzeko edo koadernoak...

ENDIKA AZPIROZ 1A

Ni Lauaizetara iritsi baino lehen, oso urduri nengoen. Baita Lauaizetako taldeengatik, eta esan zigutenean ez gintuztela Intxaurrendokoekin ezta Hegoakoekin nahastuko, oso ideia ona iruditu zitzaidan, aldaketa handia izan zelako eta konfiantza gehiago edukitzeko gelan ez gaituzte nahastu neure ustez. Beste arrazoi batengatik urduri, azterketengatik, etxerako lanengatik, irakasleengatik... Inpresio ona emango nien besteei pentsatzen nuen denbora guztian. Baina dena normala iruditu zitzaidan uste nuen 4. mailakoak denaren poderio izango zirela, baina ez, nahiko atseginak dira, asko ezagutzen ditut.

Lehenengo eguna oso aspergarria iruditu zitzaidan, baina aldi berean interesgarria, lehenengotariko eguna baitzen Lauaizeta ikusten nuela. Orain askoz lasaiago nago, konfiantza daukadalako, ohitzen ari naizelako azterketetarako asko ikasten, baina uste nuena baino etxekol an gutxiago ditugu.

Gustura nago! Oso ondo ari naiz pasatzen, baina orain nahiko estresatuta nago azterketekin.

MADDI ARRETXEA 1A